

Diplomen banaketa Ingeniari Teknikoei Mondragon Unibertsitatean.

2011/04/11

Ikasleak titulaturiko espezialitateak ondorengoak dira:

Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoa, Industria Diseinuko Ingeniaritza teknikoa, Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa, Kudeaketa Informatikako Ingeniaritza Teknikoa, Industria Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoa (Telekomunikazio Sistemak espezialitatea eta Telematika).

Tituluak jasotzeko, ikasle guztiek gutxi gorabehera urtebeteko iraupena duen karrera Amaierako Proiektua egin dute enpesaren batekin lankidetzan. Enpresa horietako asko atzeritarrak dira, besteak beste, Danimarkan, Italian, Txekiar Errepublikan, Frantzian, Polonian, Austrian eta Alemanian daude.

Diploma banaketa ekitaldian Alberto Iñurrategi Iriarte euskal mendizaleak, "Ilusioa, ekimena eta erantzukizun etikoa" izenburuko hitzaldia eskaini zien titulatu berriei.

Bere esperientzian oinarrituta, Iñurrategik mendizaletasuna ulertzeko bere erari buruz hitz egingo die bertaraturiko gazteei. Esaterako, lanbizitzari abentura bati bezala aurre egiteko beharrari buruz, *"izan ere, orain hasten dira zuen benetako erronkak"*. Norbere helburuak lortzeko motibatuta egotea eta taldean lan egitea funtsezkoa da, baita egunez egun ilusioa berritzea ere, nahiz eta *"esperientzia lortu edo helburuak bete ahala"* galtzeko arriskua ere badagoela jakin. Edozein kirolarientzat edo langilerentzat balio duen axiomatariko bat hau da: ekimenari eutsi behar zaiola eta ez dugula etsi behar. *"Helburuak aukeratzean arriskatu egin behar gara. Porrota joko horren parte da, gizatiar bihurtzen baikaitu eta hobetzen erakusten baitigu"*. Erantzukizun etikoa da, hain zuzen, haren hitzaldiaren hirugarren ardatza. Lana ondo eginez, eta inori kalterik egin gabe, aurre egin behar zaie erronkei, *"norberari eta gainerakoei tranparik egin gabe"*.

Beheko bideoan, Beñat Kondek Mekanikako Industria Ingeniaritza Tekniko titulua eduki arte, bere bizi nola izan zen kontatzen du.



Diplomen banaketa

Iosu Zabala Jauna, Mondragon Unibertsitateko Errektoreak eta Vicente Atxa Jauna, Goi Eskola Politeknikoko Zuzendari Orokorrak ekitaldiaren buruak izan ziren.